

Zer dakigu HERRIKO EMAKUMEEI buruz?

Historia irabazleek, edo boterean daudenek idazten omen dute. Zenbat emakume ezagutzen ditugu, beraien izen eta abizenekin, gizon-nezko baten emaztea, ama edo arreba izan gabe, historiak gaurdaino ekarri dizkigunak? Eta horretaz aparte, ze lanei ematen zaie

garrantzia? Pertsona bat famatu edo esanguratsu izateko arrazoiak zeintzuk dira? Herriari, komunitateari, gizarteari,... aberasten, aldatzen, eraldatzen edota hobetzen laguntzen dioten ekarpenak izan daitezke arrazoiak objektiboki aztertuta.

Baina oraindik ere, gizonezkoei lotzen zai-

zkien rolen, paperen, ekarpenak batez ere hartzen dira kontuan horrelakoetan. Sarritan ahaztu egiten zaigu emakumeok, emakume izateagatik bakarrik rol horiek garatzeko aukerarik ez dugula izaten. Edota emakumeoi egozten zaizkigun rolik gabe, rol isil horiek gabe, bizitzak ez lukeela funtzionatuko...

Lagunduko diguzu historiak kontuan hartu ez dituen gure udalerriko beste emakume batzuk gure historian sartzen? Ezagutzen baldin baduzu edo ezagutu baduzu; entzunez, etxean, kalean,...; ekarpen ezberdinak egin dizkigun emakumeren bat jarri harremanetan udaletxearen mesedez.



Elvira de Leyba. XV. mendea.

1457. urtean, Limitadoan dauden lurren usufruktua eman zion Otxandioko herriari, herentzian. Historia liburuetatik ezaguna den Juan Alonso

de Muxika, Aramaioko kondearen ama izan zen.



Ibabeko Berta. XV. mendearen bukaera.

Kondairaren arabera, Berta bere ezkontza gauean kondearengana joan zen satsez zikinduta. Hori dela eta, kondeak uko egin zion gaua berarekin pasatzeari eta horrela Aramaion zuen perna-eskubidea (derecho a primera noche) galdu zuen.



Pilar Calixta Amilburu Elorza. 1871-XX.

Pianojolea izan zen. Txikitatik, etxean ikasita, musikarako talentu berezia izan zuen. Pianojolea izan zen. Pedro Arexolaleibarekin ezkondu zen, aitaren onespenerik gabe, Marinera.

Bertako elizako organilloa jotzen zuen baina ez meza orduan, emakumea izateagatik debekatuta baitzegoen.



Maria Cruz Guruzeta Unzueta. 1871-1934.

Areartzara joan zen bizitzera, ezkondu ostean. Emagina izan zen eta Areartzako 'Emakume Abertzale Batza' erakundearen sortzailea 1932an. Politikaria, garaiko

mitinetan hartu zuen parte. Areartzan du bere izenean plaza bat.



Maria Trojaola Azpeitia 1881-1953.

Petrikilo, kurandera, izan zen. Oso trebea zen hezurretako minekin eta herritik kanpoko jende asko etortzen zen erremedio eta berak prestatzen zituen

sendagaien bila. Beragandik asko ikasi zuen Rosali bere alabak, gero herriko emagina izan zena.



Felipa Etxebarria Altuna. 1905-1993.

Salazan baserrian jaioa. Herriko telefonista lanak egin zituen gerra aurretik. Militantea, herrigintzan eragile, besteak beste, Aramaioko Poxpolinak dantza taldeko irakaslea izan zen.



Lucia Arrieta Larrañaga (Lutxi). 1916-2003.

Jostuna izan zen eta eskolak ematen zizkien herriko neskei. Ezaguna egin zen, herritik kanpo ere, ezkontzeko soineko onenak egiten zituelako. Urte askotan, Aramaioko

estankoaren titularrak ere izan zen.



Micaela Portilla Vitoria . 1922-2005.

Gasteizen jaio zen. Irakasle izan zen eskola desberdinetan, baita Untzilla auzoan ere 1945ean. Idazle lanetan,

arte eta historia liburuak argitaratu zituen eta hauetan, Aramaioko artelanak ere bildu zituen.



Maria Teresa Irasuegi Larrañaga (Maritere). 1923-2015.

Liburuzaina eta udaletxeako idazkaria izan zen urte askotan, ezohikoa zenean emakume batek lanbide hori izatea. Eskulanetan abila zen, eta

sarritan Lutxi bere lehengusuari laguntzen zion soinekoak prestatzen. Askok bidaiatu zuen, herriko beste emakume talde batekin.



Margari Arana Urzelai. 1925-2015.

Jakinmin handiko emakumea izan zen, ikasi nahi izan zuen, baina gerrak eragotzi zion. Aramaioko jubilatuen elkartearen sortzaileetarikoa bat izan zen, 1983. urtean eta lehendakaria izan zen.



Timoti Etxebarria Altuna. 1942-2009.

Solaia baserrian jaioa, betidanik artzai. Ezkondu ondoren Elorri bizi izan zen, baina eguneroko etortzen zen Aramaiora, askotan oinez, artalde auzo ezberdinetako zelaietan ibiltzen.



Blanka Mendiadua Elorza. 1948-2020.

Etxaguengo Etxebarria baserrian jaioa, herriko irakaslea izan zen urte askotan. Herrigintza oinarri, elkarte askotako eragile izan zen: Papargorri, Andra Mari kofradia, ASE,...